

1/ 2017 JARRAIBIDEAK**NORK: GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIAK****NORI: ZERBITZU-ERAKUNDEETAKO PERTSONALEKO ZUZENDARIEI****GAIA: 2017-2018 IKASTURTEKO LANORDUETAKO ETA LANORDUZ KANPOKO EUSKARA IKASTAROAK**

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiaren eta Osakidetza zuzendari nagusiaren 2017ko martxoaren 14ko 452/2017 Ebazpenak (2017ko martxoaren 30ean argitaratuta) ezarritakoa betez, barne jarraibide hauen bidez euskera ikasteko eskabideak tramitatzeke eta langileak aukeratzeko prozedura ezartzen da, 2017-2018 ikasturteari dagokiona.

JARRAIBIDEAK**1.- INDARRALDIA**

Jarraibide hauek arauak ematen dituzte 2017-2018 ikasturteko lehen lauhilekoari dagokion lanorduetako ikastaroetan eta urte osoa hartzen duten ikastaroetan parte hartuko duten langileak aukeratzeko.

Osakidetza Giza Baliabideen Zuzendaritzak dagozkion Jarraibideak emango ditu bigarren lauhilekoaren ikastaroetarako langileak aukeratzeko arauei dagokienez.

2.- NORENTZAT

Deialdian parte har dezakete Osakidetza langileek, lan-harremana edozein izanda ere, baldin eta deialdiaren ebazpenaren egunetik (2017ko martxoaren 14) ikastaro mota bakoitzerako eskaerak egiteko epea bukatu arte zerbitzu aktiboan, senideak zaintzeko eszedentzian edo zerbitzu berezietan badaude (lanorduetakoa: 2017ko apirilaren 23a; lanorduz kanpokoa: 2017ko maiatzaren 19a).

Gainera, aldi baterako langileen eta ordezkoen kasuan, ebazpena EHAA-n argitaratu aurreko hamabi hilabeteetan guztira bost hilabetetik gora lan egin behar izan dute Osakidetza eta ikastaroak iraun bitartean lanean egongo direla aurreikusi behar da.

Espezialitatea egiten ari diren mediku eta erizain egoiliarrek euskalduntze ikastaroak egin ahal izango dituzte, euren prestakuntza aldiaren urtea gorabehera.

3.- ESKAINITAKO IKASTAROAK**3.1.- LANORDUETAKO IKASTAROAK**

Lanorduetako euskera ikastaroetan parte hartzen duten langileek lanpostu zuzuli beharko dute eskolarik ez dagoen egunetan, aurrerago banatuko den egutegiaren arabera.

**EUSKO JAURLARITZA**
GOBIERNO VASCO

Ikastaroaren egutegi zehatza ikastaroa hasi baino lehenago banatuko da, eta bertan adieraziko dira jai eta zubi egunak. Egutegian izan daitekeen edozein aldaketa garaiz jakinaraziko da.

IVAPek bere gain hartuko ditu matrikula eta, hala dagokionean, egonaldiaren gastuak.

3.1.1. Barnetegia

Barnetegiko ikastaroak Zornotzako barnetegian eta Lazkao Maizpide euskaltegian egin ahal izango dira. Langileak berak erreserbatu beharko du lekua dagokion barnetegian. Barnetegiko ikastaroak euskaltegien egutegira eta ordutegira egokituko dira.

Barnetegietako egonaldiak lau hilabetekoak izango dira.

3.1.2. Bost orduko ikastaroak

Modulu honek egun osoko lan-liberazioa eskatzen du, eskola orduetako ikasleak lan pertsonalerako behar duen denbora gehitu beharra baitago.

Ikastaroek beti ere lau hileko iraupena izango dute.

Administrazio taldeek honako egutegi eta ordutegi hau izango dute:

Egutegia:

2017ko urriak 2 – 2018ko otsailak 9 (hiru ebaluazio egingo dira euskalduntzean).

Ordutegiak:

Bilbo eta Donostia: 08:00-14:00

Gasteiz: 08:30-14:30

Gabonetan ez da eskolarik izango 2017ko abenduaren 26tik 2018ko urtarrilaren 1a bitartean, biak barne; beraz, eskolarik ez dagoen egun horietan langileak lanpostura itzuli beharko du, aurrerago banatuko den egutegiaren arabera.

Ikastaroaren egutegi zehatza ikastaroa hasi baino lehenago banatuko da, eta bertan adieraziko dira jai eta zubi egunak. Halaber, egutegian izan daitekeen edozein aldaketa garaiz jakinaraziko da.

3.1.3. Bi orduko ikastaroak

Modulu honek ikasturte osorako iraupena du; beraz, bigarren lau hilekoan ez da ikasle berririk onartuko.

Administrazio taldeetako ikastaroen ordutegia 08:00etatik 10:00etara izango da Bilbon, Gasteizen eta Donostian.

Arratsaldeetarako IVAPek ez du administrazioko talderik osatuko eta, ondorioz, arratsaldez eskolak hartu nahi dituzten langileei matrikula-orria emango zaie, nahi duten euskaltegi homologatuan matrikulatzeko, betiere onartu zaien moduluan.

Egutegia IVAPeko ikastaldeetan: 2017ko urriak 2 – 2018ko maiatzak 31 (bi ebaluazio egingo dira euskalduntzean)

2017ko abenduaren 26tik 2018ko urtarrilaren 6a artekoak, biak barne, ez dira eskola egunak izango; beraz, eskolarik ez dagoen egun horietan langileak lanpostura itzuli beharko du, aurrerago banatuko den egutegiaren arabera.

Aste Santuan ere, 2017ko martxoaren 26tik apirilaren 8ra bitartean ez da eskolarik izango.

Laugarren urratsetik gorako taldeek astebeteko ikastaro trinkoa (egunean 5 ordu) burutu ahalko dute, horretarako dauden baliabideen arabera.

Astebeteko ikastaroaren datak gerturatu ahala IVApek Giza Baliabideen Zuzendaritzari bidaliko dio eragindako langileen zerrenda, zerbitzuko beharrianak aurreikusita, ikastaroa egin ahal izan dezan. Langileren batek joaterik ez badauka ezin joana aldeztu aurretik idatziz adierazi beharko du.

Administrazioko talderik ez duten langileak.

Administrazioko taldeen ordutegia eskatu arren talderik osatu ezin denean, IVAP saiaturiko da ikasleak euskaltegi homologatu baten taldean eskolatzen, eta hori ere ezinezko bada, IVApek Giza Baliabideen Zuzendaritzara bidaliko ditu matrikula orriak, honek langile bakoitzaren pertsonaleko zuzendaritzara helarazteko. Matrikula orriaren bitartez interesatuak berak aukeratutako euskaltegi publiko edo pribatu homologatuan matrikulatu ahal izango da, betiere ere onartu zaion moduluan.

Halaber, beste ordutegi edo herritan ikasi nahi duten ikasleei IVApek matrikula-orria emango die, nahi duten euskaltegi homologatuan matrikula daitezen, betiere onartutako moduluan.

Interesatuak dagokion euskaltegiaren egutegira eta ordutegira moldatu behar du, egutegi eta ordutegi horiek IVApek eskainitako ikastaroekin bat ez datozenean.

3.2.- LANORDUZ KANPOKO IKASTARO-ESKAINITZA

Ikastaro hauek 2017-2018 ikasturte osorako izango dira, hau da, urritik ekainera; beraz, bigarren lauhilekoan ez da ikasle berririk onartuko.

Deialdi honetan eskaintzen diren ikastaroak honako hauek dira:

- Aurrez aurreko ikastaroak euskaltegian
- Ordenagailu bidezko autoikaskuntza ikastaroak.

4.- ESKABIDEEN EPEAK, TRAMITAZIOA ETA JAKINARAZPENA

Ikastaroetan parte hartu nahi duten langileek eskabidea egin beharko dute, ondorengo helbide elektronikoetan:

- www.osakidetza.eus (Profesionalak > Euskara > Euskarazko prestakuntza >Euskalduntze ikastaroak > 1,2,3HE prestatzeko ikastaroak >2017-2018 ikasturtea: deialdi nagusia > Eskainitako ikastaroak / Eskabideak > Internetetik)

- www.osakidetza.euskadi.eus (Profesionalak > Euskara > Euskara ikastaroak > 2017-2018 ikasturtea: deialdi nagusia > Eskainitako ikastaroak eta eskabideak > Internetetik).



Era berean, izena emateko eskabidea aurkeztu ahal izango da Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan jasotakoan, bat etorrira Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen azken xedapenetako zazpigarrenaren bigarren paragrafoan adierazten denarekin. Horretarako, 452/2017 Ebazpenaren III. Eranskineko eskabide orria erabil daiteke.

Zerbitzu-erakundeek eskabideak GIZABIDE-EUSKERA prestakuntza moduluan grabatu eta tratatu beharko dituzte. Onartutako eta ukatutako eskabideen zerrenda Giza Baliabideen Zuzendaritzara bidaliko da, aukeratutako erretserben zerrendarekin batera.

BAME diren langileek argi zehaztu beharko dute eskabidean, "Oharrak" izeneko atalean, hain zuzen ere, zein zentroan ari diren lanean eskabidea betetzeko unean.

1.- Lanorduetako ikastaroetarako epeak.

Eskabidea egiteko epea: 2017ko apirilaren 3tik 23ra bitartekoa, biak barne. Data horretatik aurrera zerbitzu-erakundeek ez dute eskabiderik onartuko.

2017ko maiatzaren 8a izango da azken eguna zerbitzu-erakundetako pertsonaleko zuzendaritzek Osakidetzako Giza Baliabideen Zuzendaritzan eskabideak aurkezteko.

2017ko maiatzaren 19a izango da azken eguna Giza Baliabideen Zuzendaritzak IVAPI baimendutako eskabideen berri emateko.

Zerbitzu-erakundeen zuzendaritzek interesatuei jakinaraziko diete idatzizko jakinarazpenaren bidez haien eskabidea baimendu duten ala ez. Onartu ez dutenean, arrazoia espresuki azaldu beharko die interesatuei. Jakinarazpena 2017ko maiatzaren 10erako egin beharko da beranduen ere. Halaber, zerbitzu-erakundeek zabalkunde handiena duen hedabideen bidez emango dute jakinaraztera onartuen eta ukatuen zerrenda (posta elektronikoa, intranet, iragarki-taula ...).

2.- Lanorduz kanpoko ikastaroetarako epeak.

Eskabidea egiteko epea: **2017ko apirilaren 3tik maiatzaren 19ra** bitartean, biak barne. Data horretatik aurrera zerbitzu-erakundeek ez dute eskabiderik onartuko.

2017ko ekainaren 7a izango da azken eguna zerbitzu-erakundetako pertsonaleko zuzendaritzek Osakidetzako Giza Baliabideen Zuzendaritzan eskabideak aurkezteko.

2017ko ekainaren 23a izango da azken eguna Giza Baliabideen Zuzendaritzak IVAPI baimendutako eskabideen berri emateko.

2.1.- Baimendutako eta baztertutako eskaeren zerrendak jakinaraztea.

Baimendutako eskaerak IVAPera bidaltzeko epea igaro ondoren, Osakidetzako Giza Baliabideen zuzendariak, ebazpen baten bidez, baimendutako eta baztertutako eskaeren behin-behineko zerrenda onartuko du. Baztertuen kasuan, baztertzearren arrazoia adieraziko da. Aipatutako ebazpena Osakidetzaren web gunean jarriko da jende aurrera baita zerbitzu-erakundeetan zabalkunde handiena duen hedabideetan ere (posta elektronikoa, intranet, iragarki-taula ...).



Behin-behineko zerrenda Osakidetzaren web gunean jende aurrean jarri eta hurrengo egunetik hasita, interesatuek 10 egun naturaleko epea izango dute erreklamazioak Osakidetzako Giza Baliabideen zuzendariari aurkezteko.

Erreklamazioak Osakidetzako edozein zerbitzu-erakundetako erregistroan aurkeztu ahal izango dira eta, halaber, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan jasotako edozein eratan, bat etorruta Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen azken xedapenetako zazpigarrenaren bigarren paragrafoan adierazten denarekin.

Erreklamazioak aurkezteko epea igaro ondoren, Osakidetzako Giza Baliabideen zuzendariaren ebazpen bidez ebatziko dira. Ebazpen honek baimendutako eta baztertutako eskaeren behin betiko zerrenda jasoko du; baztertuen kasuan, baztertzearen arrazoiak adieraziko da. Aipatutako ebazpena Osakidetzaren web orrian jarriko da jende aurrera baita zerbitzu-erakundeetan zabalkunde handiena duen hedabideetan ere (posta elektronikoa, intranet, iragarki-taula, ...).

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, ebazpena Osakidetzaren web orrian jendaurrean jartzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita.

IVAPetik matrikula orriak heltzen direnean, irailean hain zuzen ere, zuzendaritzek matrikula orriak heldu direla jakinarazi beharko dute zabalkunde handiena duen hedabideen bidez (posta elektronikoa, intraneta ...).

5.- IKASTAROEN ONARPEN-ARAUDIA.

5.1.- Lanorduetako ikastaroak

Lanorduetako ikastaroa baimentzeko orduan kontuan hartuko dira aurreko ikastaroetan langileak izandako aprobetxamendua, ordu-kredituaren saldoa eta 452/2017 Ebazpenean ezarritako gainerako betekizunak.

Zerbitzu erakunde bakoitzaren zuzendaritzak aukeratuko ditu ikastaro hauetan parte hartuko duten langileak.

Onespena jaso duten eskarien ondorioz, ordezeko langileak kontratatu beharra dagoenean, kontratatu beharreko langileen kopurua zerbitzu-erakunde bakoitzari helburu horretarako ezarritako aurrekontuaren arabera izango da.

2016-2017 ikasturterako deialdia arautu zuen 276/2016 Ebazpenaren bederatzigarren oinarriak ezartzen zuena betetzeko, 2016-2017 ikasturtean matrikula-orria itzuli ez edo jaso ez zuten langileei ez zaie onartuko 2017-2018 ikasturterako eskaerarik.

Eskolarik ez dagoen egunetan, euskara ikastaroa lanorduetan egiten ari diren langileek beren lanpostuetara itzuli beharko dute ezinbestean. Normalean horrela gertatzen da Gabonetako eta Aste Santuko eskola-oporretan, jaiegunetan, baita euskaltegiak egiten dituen asteburuko zubietan ere.

Zerbitzu-erakundeko zuzendaritzak bermatuko du ikastaroetan parte hartuko duten langileek euren oporrak ikastaroko egutegiarekin egokitzen dituztela, ikastaroen aprobetxamenduak kalterik

izan ez dezan. Pertsonaleko zuzendaritza bakoitzak liberatuta dagoen langilearen karteldegia urteko ohiko lanaldira egokituko du.

Liberatuta dagoen langileak eskola-egunetik kanpo hartu behar ditu opor-egunak, ikastaro hauen ezaugarriak kontuan hartuta, aprobetxamendua ahal den onena izateko.

Ikas-prozesua eteteak ikastaroan jarraitzeko eskubidea galtzea ekar lezake.

5.1.1. Ikastaro trinkoak (5 ordukoak eta barnetegiak)

Liberazioak lau hilabeterako izango dira. Hurrengo liberazioa eman aurretik kontuan hartuko dira aurreko ikastaroko aprobetxamendua, ikaslearen ordu-kredituaren saldoa eta 452/2017 Ebazpenean ezarritako gainerako betekizunak.

Baimendutako eskabideekin batera, zenbait ordezkorenak ere bidaliko dira (gutxienez 2 eta gehienez 4), bajarik egonez gero, ordezkoeekin betetzeko aukera egon dadin. IVApek ekainean egingo diren mailaketa-proben emaitzak jakinarazten dituenean izango da azken eguna ordezkapenak egiteko.

Baimena alfabetatze-ikastaroak egiteko ematen denean, erakundeak hasieratik hartuko du kontuan baimen hori jaso duen langilea ordezkatzeko aukera, alfabetatzeaz besteko ikastaro bat egingo duen langile batekin hain zuzen. Izan ere, ohikoak dira alfabetatze-taldeak eratzeke zailtasunak. Beraz, kasu honetan erakundeak arretaz zainduko du ordezkoei baldintza guztiak betetzea.

5.1.2. Bi orduko ikastaroak

Lanorduetan 2 orduko ikastaroetan parte hartu ahal izango dute soilik txanda finkoan ari diren langileak.

5.2. Lanorduz kanpoko ikastaroak

Deialdi hau 2017-2018 ikasturte osorako da.

Lanorduz kanpoko ikastaroak bigarren oinarriaren baldintzak betetzen dituzten Osakidetzako langile finkoentzat, bitartekoentzat eta aldi baterako kontratatuentzat dira. Aldi baterako langileen eta ordezkoen kasuan, ebazpena EHAA-n argitaratu aurreko hamabi hilabeteetan guztira bost hilabetez gora lan egin behar izan dute Osakidetzan eta ikastaroak iraun bitartean lanean egongo direla aurreikusitako behar da.

Espezialitatea egiten ari diren mediku eta erizain egoiliarrek euskalduntze ikastaroak egin ahal izango dituzte, euren prestakuntza aldiaren urtea gorabehera.

Lanorduz kanpoko ikastaroetan ez da onartuko ikastaro mota aldatzea; beraz, langileak onartu zaion ikastarorako matrikula-orria jaso ondoren, ezin izango du aldatu.

2016-2017 ikasturteko deialdia arautu zuen 276/2016 Ebazpenaren 7.3. oinarriak ezartzen zuena betetzeko, ez da baimenduko 2016-2017 ikasturtean matrikula-orria itzuli ez edo jaso ez zuten langileen 2017-2018 ikasturterako eskaerarik.

5.2.1. Autoikaskuntza on-line ikastaroak

Autoikaskuntzarako eskaera guztietatik kopuru mugatua onartuko du IVAPek; alegia, Osakidetza baimentzen dituen lanorduz kanpoko eskaera guztien %15, gehienez ere. Hori dela eta, guztira baimendutako lanorduz kanpoko ikastaro kopuruaren arabera, zerbitzu-erakunde bakoitzak izango duen autoikaskuntza ikastaroen baimen-kupoa zehaztuko du Giza Baliabideen Zuzendaritzak.

Zerbitzu-erakundeek ezetsi egingo dituzte 2016-2017 ikasturtean autoikaskuntza ikastaroa egiten ari diren langileen eskaerak bigarren hiruhilekoaren bukaeran %80ko aprobetxamendua betetzen ez badute.

Nolanahi ere, zerbitzu-erakundeak eskaerak baimentzeak ez du ziurtatzen IVAPek automatikoki eskaerak onartuko dituenik. Izan ere, IVAPek 2017-2018 ikasturtean behin betikoz onartzeko, 2016-2017 ikasturtean autoikaskuntza ikastaroa egin duen ikasleak ikasturte bukaeran %80ko asistentzia izan beharko du. IVAPek ez du onartuko baldintza hori betetzen ez duen pertsonaren eskaera.

Halaber, kontuan izanda autoikaskuntza ikastaroetarako baimenak emateko lehentasun-hurrenkera zehatza dagoela eta zerbitzu-erakunde bakoitzak lizentzia-kupo jakina izango duela, 276/2016 Ebazpenaren hamargarren oinarriak ezartzen zuena betetzeko, zerbitzu-erakundeek ezetsi egingo dituzte 2016-2017 ikasturteko autoikaskuntza ikastaroa hasi eta lehenengo hiru hilabeteen eskola utzi dutenen autoikaskuntzarako eskaerak.

6.- LANORDUETAKO IKASTAROETARAKO AUKERAKETA-IRIZPIDEAK

Osakidetza Euskararen Erabilera Normalizatzeko 2. Planaren 3.3.4 puntuan ezarritakoaren arabera, euskara-ikastaroetara lanorduetan joateko irizpide orokorrak honako hauek izango dira:

- Derrigortasun-datadun lanpostuak betetzen dituzten langile finkoek lehentasun handiagoa izango dute derrigortasun-datarik gabeko lanpostua betetzen dutenek baino.
- Langile finkoek lehentasun handiagoa izango dute finko ez diren langileek baino.
- Lanpostuaren hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta ez duten langileek lehentasun handiagoa izango dute hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta duten langileen aldean.
- Adinagatik edo lan-harremanagatik, inor da baztertua izango lanorduetako euskara ikastaroetara joateko.

Dena dela, 50 urtetik gorako langileen kasuan, egiaztatu beharko da 106 urratsa gaindituta dutela.

Kontuan hartuta prestakuntzaren helburua dela zerbitzu-erakundearen helburuak lortzen laguntzea, ondorengo irizpide hauek ere aintzat hartuko dira irizpide nagusiekin batuz eta osatuz:

- Egiaztapena lortzeko behar den prestakuntza-denbora.
- Hizkuntz eskakizuna jadanik egiaztatu duten langileen birziklatze beharrak.
- Lanpostu funtzionalari ezarri zaionetik gorako hizkuntz eskakizuna egiaztatzea komeni izatea, efektibo bateko funtzioak betetzearen inguruan egoeraren arabera suerta daitezkeen zirkunstantzia bereziengatik.
- Pertsonal finko ez-titularrak, adinagatik salbuetsitako pertsonalak edo pertsonal interinoak betetzen duen efektibo batean modu espezifikoan sortzen diren behar zehatzak eta ohiz kanpokoak, hala nola, atenditutako herritarrak pozik ez egotea, eskatzen dituzten zerbitzu elebidunak ez



jasotzeagatik, edo jarduera asistentzialeko arduradunek paziente eta erabiltzaileekiko harremanen kalitatean eragina izaten duten gabezi garrantzitsuak nabaritzea.

–Pertsonal interinoa denean, efektibo horretan jarraitzeko aurreikuspena ere baloratuko da.

–Langileen ikaste-prozesua nabarmenki erraztu edo zailtzen duten gorabeherak eta horregatik prozesuaren errendimendua eta hizkuntz eskakizuna egiaztatzeko aukerak areagotu edo murriztu ahal dituztenak, hala nola, hasierako euskera maila eta langilearen adina.

–Efektiboaren harreman zuzena paziente eta erabiltzaileekin, Osakidetzaren euskeraren erabilera normalizatzeko den 67/2003 Dekretuaren eta Zerbitzu-erakundeko Euskera Planaren lehentasunen arabera.

Nolanahi ere, lanorduetako ikastaro trinkoetara joateko baimena ondoko irizpideari lotuta egongo da: langileak lehentasunezkoztat jotako unitatean dagoen lanpostua bete beharko du, Osakidetzan 2. Euskara Planaren 5.5 atalak jasotakoaren arabera.

7.- LANORDUZ KANPOKO IKASTAROETARAKO AUKERAKETA-IRIZPIDEAK

7.1. Aurrez aurreko ikastaroak

Izaera orokorreaz, lanorduz kanpoko ikastaro presentzialetarako baimena 2/3 orduko ikastaroak egiteko emango da. Eskaintza honetatik kanpo geratzen dira barnetegiko ikastaroak.

Lanorduz kanpoko ikastaro trinkoa langile finkoek eta interinoek soilik eska dezakete eta eskaeran adierazi beharko dute. Aldi-baterako langileek bi edo hiru orduko ikastaroak eska dezakete soilik.

7.2. Autoikaskuntza ikastaroak

Autoikaskuntza ikastaroak txandaka lan egiten duten edo euren lanpostuaren berezitasunak direla eta euskaltegian aurrez aurreko ikastaroa egiteko zailtasunak dituzten langileentzat dira. Hori dela eta, autoikaskuntzako ikastaroetan parte hartzeko baimena ematerakoan lehentasuna izango dute txandaka lan egiten duten langileek, ondorengo hurrenkeraren arabera: langile finkoek, bitartekoek eta behin-behinekoek.

Oro har, lehentasun hauen arabera emango dira lanorduz kanpoko autoikaskuntza ikastaroa egiteko baimenak:

- Txandaka lan egiten duten langile finkoak
- Txandaka lan egiten duten langile interinoak
- Txandaka lan egiten duten langile ordezkari eta aldi baterakoak
- Langile finkoak
- Langile interinoak
- Langile ordezkari eta aldi-baterakoak

Zerbitzu erakunde bakoitzaren zuzendaritzak aukeratuko ditu autoikaskuntza ikastaroetan parte hartuko duten langileak. Autoikaskuntzarako baimendutako eskabideekin batera, zenbait ordezkariak ere bidaliko dira (gehienez ere 4), bajarik egonez gero, betiere ahal izanez gero, ordezkariak betetzeko aukera egon dadin. Ordezkoak aukeratzeko, aipatutako irizpide berberei jarraituko zaie.

8.- IKASTAROEI UKOAK ETA ESKOLA-UZTEAK TRAMITATZEKO PROZEDURA

8.1. Ikastaroari ukoa.

Langileak ikastaroa ez egitea erabakitzen badu, matrikula orria itzuli beharko du 2017ko urriaren 20a baino lehenago. Horretarako "Ikastaroari uko egiteko inprimakia" izeneko agiria bete eta matrikula orriarekin batera pertsonaleko zuzendaritzan aurkeztu beharko du. Matrikula orria urriaren 20rako ez itzultzea nahikoa izango da hurrengo deialdian langilearen eskaera baztertua izateko.

Inprimakia zerbitzu-erakundeetako pertsonaleko zuzendaritzetan egongo da eskura, bai eta honako helbide elektroniko hauetan ere:

- www.osakidetza.eus (Profesionalak > Euskara > Euskarazko prestakuntza > Euskalduntze ikastaroak > 1,2,3HE prestatzeko ikastaroak > 2017-2018 ikasturtea: deialdi nagusia > Ikastaroari uko egiteko inprimakia)

- www.osakidetza.euskadi.eus (Profesionalak > Euskara > Euskara ikastaroak > 2017-2018 ikasturtea: deialdi nagusia > Ikastaroari uko egiteko inprimakia)

Zerbitzu-erakundeetako pertsonaleko zuzendaritzek langileek jakinarazitako uko guztiak bidaliko dituzte Osakidetzako Euskara Zerbitzu Korporatibora, erabili ez diren matrikula orriekin batera, baita langileek jaso ez dituzten matrikula orri guztiak ere.

Matrikula orriekin eta uko jakinarazpenekin batera ukoen laburpenen zerrenda bat bidali beharko da.

Langileek itzultzen edo jasotzen ez dituzten matrikula-orriak, eta hala dagokionean jakinarazpenak, beranduen ere, 2017ko azaroaren 3rako egon beharko dute Giza Baliabideen Zuzendaritzan.

8.2. Eskola uztea.

Eskolan hasi ondoren ikastaroa behin betiko utziz gero, horren berri eman beharko dio langileak bere Pertsonaleko Zuzendaritzari eskola uztea gertatzen den une berean. Horretarako "eskola-uztea jakinarazteko inprimakia" izeneko agiria bete eta dagokion pertsonaleko zuzendaritzan erregistratu beharko du.

Inprimakia zerbitzu-erakundeetako pertsonaleko zuzendaritzetan egongo da eskura, bai eta honako helbide elektroniko hauetan ere:

- www.osakidetza.eus (Profesionalak > Euskara > Euskarazko prestakuntza > Euskalduntze ikastaroak > 1,2,3HE prestatzeko ikastaroak > 2017-2018 ikasturtea: deialdi nagusia > Eskola-uztea jakinarazteko inprimakia)

- www.osakidetza.euskadi.eus (Profesionalak > Euskara > Euskara ikastaroak > 2017-2018 ikasturtea: deialdi nagusia > Eskola-uztea jakinarazteko inprimakia)

Aurrez aurreko ikastaroetan derrigorrezkoa izango da eskola uztea jakinaraztea. Eskola-uztearen data inprimakia langilearen zerbitzu-erakundearen erregistroan sartu den eguna izango da eta IVApek egun hori hartuko du ordu-kredituaren kontaketa eteteko. Hau da, eskola-uztea

jakinarazten ez bada, ikasleak jarraitu egingo du ordu-kredituaren orduak gastatzen. Beraz, ordu-kredituaren ondorioetarako, oso garrantzitsua izango da inprimakia zerbitzu-erakundearen pertsonaleko zuzendaritzan lehenbailehen erregistratzea.

Autoikaskuntza ikastaroetan IVAPek ez du eskola-uzterik onartuko, ikasleak eskola-uztea jakinarazi badu ere.

Autoikaskuntza ikastaroa uzteak bi ondorio izango ditu: batetik, ordu-kredituari ikastaroaren ordu kopuru oso kenduko zaio eta, bestetik, hurrengo deialdian autoikaskuntza eskaera ezetsi egingo da, interesatuak ez baitu 2017-2018 ikasturteko autoikaskuntza ikastaroan %80tik gorako asistentzia beteko.

IVAPek ordaindutako ikastaroen kasuan, zerbitzu-erakundeetako pertsonaleko zuzendaritzek eskola uzteei dagokien dokumentazioa bidaliko dute IVAPera egun berean, IVAPek dagokienei horren berri eman diezaien. Halaber, Osakidetzako Euskera Zerbitzu Korporatiboari eskola uzteen berri emango diote.

Osakidetzak ordaindutako ikastaroen kasuan, zerbitzu-erakundeetako pertsonaleko zuzendaritzek eskola uzteei dagokien dokumentazioa Osakidetzako Euskera Zerbitzu Korporatibora bidaliko dute.

9.- ORDU KREDITUA

Deialdi honetara biltzen diren eskari guztiek ordu-kredituaren sistema izango dute ezarrita, betiere, IVAP eta Osakidetzaren arteko lankidetzak hitzarmena arautzen duen 2005eko azaroaren 30eko Aginduak ezarritakoaren arabera.

Agindu horren seigarren artikuluari jarraiki, euskara ikastaroa lanorduetan hasi ahal izateko beharrezkoa izango da ordu-kredituaren saldoa aldekoa izatea ikasturte hasieran.

Ordu-kredituaren kontrola honela aplikatuko du:

a) Eskolan 2017ko urrian hasiko diren ikasleei, lanorduetan zein lanorduz kanpo izan, ikasturtea hasi aurretik aplikatuko zaie ordu-kredituaren kontrola eta saldo negatiboa dutenak ezin izango dira urrian hasi. Aldeko ordu-kreditua dutenak, aldiz, hasi ahal izango dira, eta ez zaie ordu-kredituaren kontrola aplikatuko ez otsaileko deialdian, ez udakoan. Ondorioz, ikasle horiek parte hartu ahal izango dute bai otsaileko deialdian bai udakoan (horretarako eskaera ezarritako epe barruan aurkeztu badute, behintzat), nahiz eta ordurako ordu-kreditua negatiboa izan.

b) 2018ko otsailean lanorduetan hasiko diren ikasleei otsaileko ikastaroa hasi baino lehen aplikatuko zaie ordu-kredituaren kontrola; eta saldo negatiboa dutenak ezin izango dira otsailean hasi. Aldeko ordu-kreditua dutenak, aldiz, hasi ahal izango dira, eta ez zaie ordu-kredituaren kontrola aplikatuko udako deialdian eta parte hartu ahal izango dute udako deialdian (horretarako eskaera ezarritako epe barruan aurkeztu badute, behintzat), nahiz eta ordurako ordu-kreditua negatiboa izan.

c) 2018ko udan hasiko diren ikasleei, aldiz, udako eskaera IVAPen jaso orduko aplikatuko zaie ordu-kredituaren kontrola; eta saldo negatiboa dutenak ezin izango dira udako ikastaroan hasi. Udako ikastaroa egin ahal izateko, aldeko saldoa izan beharko dute; bestela, IVAPek bazter utziko du eskaera.



Urrian aldeko saldoarekin eskolan hasitako langileek otsaileko deialdian lanorduetako ikastaroa eskatu eta otsailerako ordu-kreditua negatiboa badute, Osakidetza Giza Baliabideen zuzendariaren 1/2015 Jarraibideek ezarritako baldintzak bete beharko dituzte. Bestela, ukatu egingo zaie eskatutako ikastaroa.

Zerbitzu-erakundeek informatuko dituzte euskera ikastaroetan arituko diren langileak ordu-kredituaren gainean. (I. Eranskina-Deialdiaren laburpena).

10.- ORDEZKAPENAK SAPen ERREGISTRATZEA

Euskara ikasteko liberazioak betetzeko kontratatzen diren ordezkapenetan SAPEko ondorengo neurri eta zioetako bat aplikatu beharko da kasuaren arabera: 9A, 13; 81, 09 zioa; 83, 09; 84, 10; 84, 11; 9Y, 07.

Neurri horiek aplikatzerik ez dagoenean, zerbitzu-erakundeek Euskara Zerbitzuari kontsultatuko diote. Ordezko langilea ordezkatu behar denean, ostera, ez dira neurri horiek aplikatuko.

Era berean, kontuan hartu behar da eskolarik ez dagoen guztietan, liberatutako langileek euren lanpostura itzuli behar dutela (Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen zuzendariaren eta Osakidetza Giza Baliabideen zuzendari nagusiaren martxoaren 14ko 452/2017 Ebazpenaren 8.4. puntua). Normalean horrela gertatzen da Aste Santuko eta Gabonetako eskola-oporretan, jaiegunetan, baita euskaltegiak egiten dituen asteburuko zubietan ere.


Horregatik, aipatutakoa hartu beharko da kontuan ordezkoen kontratuetako hasiera eta bukaerako datak ezartzeko orduan.

Beraz, eskolarik ez dagoenean langilea ez bada lanera itzultzen, ordezkoaren neurria egokitu egingo da.

11.- DEIALDIKO ARAUAK

2017-2018ko deialdiko alderdi orokorren arau zehatzak (ikastaro motak, onartua izateko baldintzak, asistentzia, ikastaroa uzteko baldintzak, dirulaguntza izateko baldintzak, ikastaroaren aprobetxamendua), martxoaren 14ko 452/2017 Ebazpenean daude jasota (Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean 2017ko martxoaren 30ean argitaratua).

Vitoria-Gasteiz, 2017ko martxoaren 31


Jose Maria Armentia Macazaga
GIZATAU BAIABIDEEN ZUZENDARIA
Izpta.: Jose Maria Armentia Macazaga
GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA